# Platica para la Dominica de Septuagesima.

## Sobre el trabajo.

Quid hic statis tota die otiosi? ite et vos in vineam meam.

Cer equiten dozube or egun gustian alperric? Zoaze subec ere nire masdiura. S.n Matheoen, 20 cap.

Gaurco Evangelioac dacar parabolia familiaco Aitarena, urten ebena gozian goiz lanquinac eroatera bere masdiura. Leenengoac ercan cituban eguneco leenengo orduban, eta asus tadu zan euraquin alogoz sicuban. Urten eben guero Terci aco orduban, seigarrenian, eta bederatcigarrenian: eta to padu cituban beste batzuc, egozenac plazan alperric, esan eusten; zoace bearrera nire masdiura, eta emongo deutzu bet erracoez dana. Urten eben arquenez amaiquetaco ordu ban, da esatea arratzaldien urrean, eta topadu cituban beste batzuc egozenac cerequin baga: ichusiluten eustela euren in utilidadea, itandu eusten. ¿Cer equitendozube or alperric egun gustian? eta emoten eubela eurac achaquiatzat; iñor ere etcitubala ocupatu, bialdu cituban bearra equitera bere mas diura.

Santu bagaric Parabola onen sentidu espirituaLian, sarraitu co dot sarritan emoten sacon esplicacinoa. Au danez, esan daiquegu chito ondo, neure Anaeac, Jesu Christoc propo nitcen deucula batez ere icun eraquiteco obligacinoa, dau capuna bearra equiteco, eta alderatceco alperquenia. Guetdi

gaitecen arretatcen materia ain importante baten. Batzuc ertaube equin gura eren, eta beguiratcen daube vici au jocu, eta diversino bat legeez; beste batzuc bearra equiten daube, bai; baina equiten daubena, equiten daube dongaro. Eta ala batzu bac erazoa bategaitic, eta besteac beste bategaitic pribatcen dira Jaungoicoac euren nequien gañean isuritcen dituban bedeincacinoetatic. Jesu Christoc, dagoana errepresentaduric Evangelioco aita familiacoan, condenatcen ditu batzubac, eta besteac. Leenengoai, dauquenac vici alperra, esaten deutse: Quid hic statis tota die otiosi! ¿ite, zoace, bada, nequea jatzube bearrecoa, edozein estadu, edo condicinoco zarela. Bigarrenai, dirianac equiten daubena bearra, baina ez bear dan espiritu baz, esaten deutse: Ite et vos in vineam meam. Eguizube bearra nire mastuian, eta santifica zaitez zeuben nequia gaitic. Eta arguemian animatceco leguez batzubac, eta besteac, gueituten dau, bear ori ertala gueratuco sari baga: Et quod justum fuerit, dabo vobis. Ona on gure parabolien explicacinoa nequeari danez. Jaungoicoac aguintcen dau, Jaungoicoac adzertuten dau, Jaungoicoac bedeincatcen dau. Tratatcen da equitea ondo bearra. Onetaraco icusico dogu Leenengo, obligacinoa, daucaguna equiteco bearra; Bigarrena, mediac ceintzucaz valiatu bear garian santificatceco gure nequea.

## Leenengo Puntua

Eraguteco ondo obligacinoa, daucaguna gurtioc bearra

equitero, asco da bequiratcea atencinoar cerparian. Gara gui
zonac, gara becatariac, gara Christinadubac.

j Guizon leguez, neguea da propioa gure naturaleciena:
da legue bat, ifini euscuna Criadoreac, eta gu gagoz obliga
turic cumplitceza. Guizona, dio Escriturreac, jaio zan bea
rra equiteco: chito noblea, perfectoa, eta justoa baran ere
Adan, aguindu eutzan Jaungoicoac, ifini ebenian Paraiso te
rrenaleam, bearra eguin, eta landu eguian: Posuit eum in
Paradiso voluptatis, ut operaretur, et custodiret illum. Ameti
icari bear dogu, chito altuba izan arren guizonen empleoa,
eta estaduba, iñoz eztala gauza indiñoa beretzat bearra
equitea: Consideracino onec eran eraguin eutzan Principe
andi bati, Jaungoicoac, eta naturaleciac gura ezpaleube Erre
gueac eguin eztaguien bearra, ez eutela emongo escuric ber
te guizonai leguez.

Paganoetaraño coac eraguitu euben egun au. Eguipcioen ante
an particular bacocha egoan obligaturic presentatcera ur
tean urtean Provinciaco Yntendenteari equiten ebena, eta
ce oficiotan ocupatcen zan; eta oficioric ezpeucan, quentcen
euben Provinciatic: ala eguin bear litzateque alper batzu
guin. Griegoen antean gurazo guztia egoan obligaturic icari
eguien euren semeac oficioren bat; eta gurasoa, obligacino
onetara faltadu ezqueno, eltcen baran pobre izatera, alaco
semeac egozen dispensaturic aristitcera. Cembat gurasoc be
ar leuque castigu au darabildelaco euren semeac alperque

rian, eta esquinaric esquiña, siquiera escolara bialdubaga. Alperrac, eta, naguiac, considera equizube chinduririen conducta, nola animalia chiquin onec bearra equiten daben udan, mantenitceco neguban, eta icasi equizuzu ci icaten: vade ad formicam, ¡o Piger! et considera vias ejus; et disce sapientiam. Baña ezpaguengoz ere obligaturic bearrera guizonen qualidadean, gagoz condenatu ric antara, becatarien qualidadean.

2. Nequea da castigu justo bat ifinia Adanen seme guztiai; Zuc becatu equin dozu, esan eutzan Jaungoicoac leenengo guizonari; bada entzun equizu zure contra emon eben sentencia icaragarria: Maledicta terra in opere tuo. Lurra izango da madaricatua zugaitic; eztozu ataraco antatic ceure sustentuba ceure vici guztian, nequien pururz ezpada. Berac emongo deutzu sasiarrac, eta arantzac, eta mantenidu co zara ceure arpeguico izerdiaz, biurtu zaiten artean lurrean, ceñetatic izan zarian formatua. Ez equizube pensatu, decreto famatu au: In sudore vultus tui vesceris pane tuo, bacarric aitcen dituba la Pobreac, eta nequea equiten daubenac; ifini zan Adanen seme guztiendaco; eta guztioc artcen gau, eta obligatcen gau guztiori equitera neque honestoren bat gorputcecoa, edo animacoa: Emon equidazube guizon bat, eztana becataria, eta libratuco dogu nequien pena tic; baña, bada, guztiac becatu equin daube, bat

ere ertago dispensatu deitequeanic pena onetatic, dana beca tuben cantiguba. Becatu eguin dogu, neure anaeac, eta ez bein bacarric, ezpada sarritan; ondo daquigu beras bearre coa da eguin daigun penitencia, irabasten dogula oguia gue ure arpeguico icerdiaz. in sudore &c. ¿ eta noiz artean izaun bearco dau negue onecc.ª Cristinaño.

3. Arguenez, gu gagoz obligaturic neguera Christinaduben qualidadean; bada alacoac leguez, bear dogu imatatu Jesu Christo gure buruba, egon gura izan ebena sujeto trabajube tara bere edaderic biguinenetic, esaten deuscuna leguez Profe tien aotic: In laboribus à iuventute mea. Guraso San tubac anretuten daube, vici izan zala urte ascoan bere escubetaco bearrar S.n Josezen lantequian, exerci tatcen ebela berac leguez arotciaco oficioa. Izaten ebeni an estadu humilde, eta necoso onetatic, ¿ ce fatiguetara et zan expomitu, ebilleta erric erri predicatcen bere Evange lioa.ª Zer eguiten badeunte Apostolubai jarraitu deguien, escoguitcen ditu gente oitubac pena, eta fatiguetara, caparac ibiltecoo mundu guztia, iracurten guizonai salvacinoco videa; eta aguintcen deunte predicatu, eta iracutci dequi en siniten euben guztiai beragan: Vicitza Christinadu ba dala videbat Cruciena, sufrimentubena, eta morti ficacinoena.

Onen ostean, ¿ nola atrevituco gara egoten alperquerian, dana, Espiritu Santubac esaten deuscunez, vicio guztien

erolia? Multam enim malitiam docuit otiositas. Escola onetan familiaco semeac, bere seme prodigoac lequez, icas ten dau ondaratuten caudala desvenguencetan, burlatcera emo ten deutcen consegubac; camuric ez equitera gurasoen ame narai, vici izatera infamian, ibiltera equinic vagamun do libertino bat, eta iltera miserian. Escola onetan Doncella batec, izanic pobrea, icasten dau vici izatera honrrabaga, galtcera lotsabaguero euquiteco cer jan, edo estutera bere citalqueriaguin, izabaci bearrean sustentuba bere nequeaz. Aberatsa bada, alperqueriac equiten dau izago daquian dem poria lo, edertuten, errezatcen, dantzatcen, zoraruneetan, con versacino peligrosoetan, nun erreinatcen daben embidiac, eta murmuracinoac, edo mentirac, Apostolubac permititcen eztauscunac esaten, gauzaric infamenac guizonen aurrean, eta gorrotogarrienac Jaungoicoen bequietara; Escola one tan, arguener, necesariac, eta oficiosoac icasten daube aberetuten andrac, equitera furiatiac, furadoreac, gaizi erac, viotz gogorrac, eta gura dan guztia, verba baten vi cio guztiac topetan dira alcanturic onegaz, diona lequez Profeta Ezequielec. ¿Eta cer jarraitcen da ortic? Ezin con tadu literquez becatuben numeroa, diranena causa al per onec. Esaguti daigun, bada, gogorena obligaturic bearra equitera, ¿baña cumplituco dogu obligacino one gaz precisamente bearra equinaz? Ez: bearda oraindio Santificatu daigun bear au.

Bigarren Puntua.

Santificatceco gueure bearra, bear dogu, guizonen gualdadean bearra eguin prudenciaz; becatari leguez penitencien espiritubaz; eta Christau leguez unituric Jesu Christogaz, gure bearra izan didin utila, meritorioa, eta onirichia Jaungoicoari.

§. Bear da leenengo, ari bearra intencino zucenaz agradatceco Jaungoicoari, ofrecitu, eta eguin sacrificio bat, armatcen dala onetaraco Crucien señaleaz. Artu bearra moderacinoaz, eta prudenciaz, eta ez bacarric intencinoaz aberastuteco. Jaungoicoac ezteutzube eragotsen, neure Anaeac, bearra eguin daguizuben euquiteco cegaz eztari ceuben necesidadeac, ceuben familiaco sustentuaraco, zeuben semeen acomoduraco; baña gura ere eztau narrastu zaitecen mundu onetaco ondasunen amodio larreguiaz, eta avariciaz, dana becatu gustien sustraia, eta Yturria, dioana leguez Sn. Pabloc. Zuguidatu eguizube avaricia arē ezin oni, pensa eraguiten deuscuna eguinaz, eta gabaz medioetan gordetceco diruba, eta pillatuteco hacienda. Considera eguizube, fortuna mediano bat logratua medio justoaquin, dala arcoz obea becatarien ondasun neurribaguea baño. Banaquetan guertatcen da, fortuna lastereguiac, eta urduriac euquitea fin ona: dator supitoan, eta supitoan doaz. Prisaz eguinico ondasuna menoscabetuco da: baña batuten dana gueldi gueldi escubaz, guei

tuco da bearrar, eta medio onaquin, dio Jaquintsubac Proverbioetan. Cap. 13. vtt. pag. 68. Equiten badozube bearra prudenciar, eta moderacinoar, Jaungoicoac bedeincatuco ditu zuben bearrac: euquico dozube lecuba pensatceco ceuben Salvacinoco negocinoan, euquiteco oracino aldi bat goizetic, eta arratsaldetic, entzuteco Mesa, sarritan errecivitceco Sacramentubac &c.

2. Becatari lez bear dogu bearra eguin penitencien espiritubar, juntatcen dala oracinoa bearrari, Adanen exempluraz, izan zana leenengo penitentea, izan zana lez leenengo becataria. Becatariac, leenengo penitente onec izan bear dau gure modeloa: jaso daigun escubac Ceruna bezac lez, alcantzatceco misericordia: bearra, eta oracinoa eguizube batera vici onetan, compotcen dana, Profeta Ezzialac dioana lez, miserien, eta aflixinoen egunaquin. ¿ Baña nola gobernatuco gara, itanduco deustazube, eltceco perfeccino onetara? ¿ Nola? ocupatcen dogula gueure espiritubar pensamentu Santubaquin, eta gueure aoa verba onaquin, eta armatcen dogula gueure viotza pacienciar. ¿ eta certan pensatu bear dogu bearre an gagozenian? Jaungoicoagan, ceñen presencian gagozen: Ceruban, izango dana gure saria, equiten badogu bearra, bear dana lez: becatuban, dana causa padecitcen ditugun gaitz guztiena. Bear da gure aotic entzun ertitecen verba onac baño. Ezcaitecen ichi eroaten colerien pasinoaz, alaco moduban, nola esarri daigun juramentubac, eta maldi

cinoac: bertela, bearra equingo dogu demonioarendaco, eta ez Jaungoicoarendaco; Infernuraco, eta ez Ceruraco.

3. Aceener santificatceco ceuben bearra, bear dozube Christau lequez unitu Jesu Christori, gure buruba, eta modela, consagratu ceuben nequeac, eta izerdiac, padecitcen dala bere amodioagaitic, berac padecitu ebena lequez gugaitic. Alacoa zan leenengo Christauben conducta: nequeric penosuenac lapuntcen cituben oracinoaz. Onetara combidat cen gau Apostolubac, dioanian: obsecro vos fratres, per misericordiam Dei, ut exibeatis corpora vestra hostiam viventem, sanctam, Deo placentem, rationabile obsequium vestrum. Exegututen deutzubet andizquiro, neure Anaiac, Jaungoicoen misericordiagaitic, ofrecitu daguizuben ceuben gorputzac hosti vici bat lequez, santuba, eta onrichua, edo agradablea Jaungoicoari, emoten jacola culto bat razonablea, eta espirituala. Culto Campoco eta servil bat Judeguena lequezcoa ezta bastante. Jaungoicoac gura dau culto, eta reverencia barruco bat, animatuba Caridadeagaitic, eta Espiritu Santuben subagaitic danaza oracinoen, eta gaizqui eguinen damuben espiritua.

Acabera. Onec dira mediocac santificatceco ceuben nequea. Reflexionatu equizube, eta procuratu equizube equitea; Zubec, neure Anae Maiteac, zare guizonac, eta baquizube ceuben vicia laburra dana, eta menturaz laster ilgo zarena. Zare becatariac, eta becatu originalari gueitu deut

zarube berte asco: bear dituzube gorritu, eta zagoze obligatu ûc conformatceca Jesu Christoren vicias, izan zana pe neen, eta trabajuben vici bat; bear dozube unitu beragaz oracinoen medioz. Gordetcen badituzube erreguela oneec, espera diteque eldu zaitecen alcanzatzera ceuben salvaci noa; baña eguiten ezpadozube casuric, bildur izan leiteque galdu daguizun denporea, ute arren bearra eguiten dozube na; Cergaitic Jaungoicoari ordenatcen eztan bearra, da bear uts bat; eta eriotzaco ordubau icusiko dozube, bea rra eguin dozubena alperric; eguin dozubena asco lurre raco, eta bapez Ceruraco. Aimbeste ute galduben orte an, eguizube gaurtic resolucino firme bat ocupatceco uti lidade gueiagoraco aorrera, eta bearra eguiteco ain santu ro, nola Ceuben eguinen arguemian merezi daguizuben san tceia descansu eternoan. Ala deseatcen deutzubet.



MAN 714

FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA